

Erakundeak babestu eta indartzeko programa da **Indartu**, BBK-ko Gizarte Ekintzarekin elkarlanean egiten dena.

Hauek dira programaren jasotzaileak:

- Bizkaiko irabazi-asmorik gabeko erakundeak,
- txikiak eta ertainak direnak,
- gizartegintzan dihardutenak,
- kudeaketan hobetzeko elementuak txertatu behar dituztenak,
- eta laguntzarako kanpo-zerbitzuak kontratatzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenak.

Indartu programari esleitutako baliabideei esker, gizartegintzako hirugarren sektoreko irabazi-asmorik gabeko erakundeak kudeatzen **adituak diren profesionalak** 6000 ordu arte ematen dituzte **laguntzen** urtean.

Kasu guztietan, **erakundeak garatu eta indartzeko** ematen da laguntza. Hortaz,

- aldi baterako izango da beti;
- proiektu giltzarriak, erakundearentzat estrategikoak direnak, izango ditu xede;
- eta bere esku-hartzea eta parte-hartzea behar izango ditu.

Horiek horrela, programa honek helburu du, erakundearen kudeaketaz arduratzen diren **pertsonak eta taldeak gaitasunak gara ditzaten** eta kanpoko laguntza ez dutenean, euren kabuz erabil ditzaketen kudeaketa-gaitasunak, tresnak eta sistemak txerta ditzaten.

Programa honen bidez **erakunde berriak** (elkarrekiko kudeatzailtza) eratu eta abiarazteko laguntza ere ematen da, baita proiektu berritzaileak zehaztu eta martxan jartzeko ere.

Erakundeak proiektua **finantzatzeko** laguntza ematen du, bere ahalbideen arabera eta kanpoko finantzaketa eskuragarriaren arabera, eta edozelan ere, kostu orokorraren % 5arekin gutxienez.

Programaren bidez eskura daitezkeen zerbitzuetako batzuk:

## 1. Antolakuntza eta estrategia

Antolakuntzaren diagnostikoa.

Bere plangintza estrategikoa eta/edo kudeaketa-plana taxutu.

Antolaketa egituratu eta hobetu.

Honako hauetan lagun egitea: aldaketa-prozesuak, ekipamenduak hobetzea, erakundearen garapena eta lidergoa.

Administrazioa eta ekonomia- eta finantza- kudeaketa hobetzeko laguntza.

Erakundeak eratzeko eta elkarrekiko kudeatzailtzarako laguntza (azken kasuan, erakundeak bere gain hartu beharreko finantzaketaren ehuneko % 5etik gorakoa da).

## 2. Proiektuak

Proiektuen identifikazioa eta bideragarritasun-azterketa, ikuspegi berriak, eta esku hartzeko metodologia berritzaileak.

Zerbitzu eta proiektu berriak taxutu.

Zerbitzu eta proiektuen kudeaketa hobetu.

Enpresekin lankidetzako proiektuak garatu.

## 3. Giza Baliabideak

Giza baliabideen kudeaketa osoa hobetu.

Prestakuntza-beharren diagnostikoak (prestakuntza-planak egitea barne).

Lanbide-garapenerako prozesuak taxutzea.

Gogobetetasun / lan-giroari buruzko ikerketak taxutu eta orientatzea eta hobekuntza-planak taxutu.

Langileak erakarri, hautatu eta hartzeko prozesuak taxutu eta hobetu.

## 4. Kalitatea eta erantzukizun soziala

Kalitatearen kudeaketarako sistemak (ISO 9001, EFQM, Premie, kalitatedun GKE) eta metodologiak (5S, zerbitzu-gutunak...) ezarri.

Gizartearekin etikoak eta arduratsuek diren kudeaketa-sistemak eta ingurumen-kudeaketako sistemak ezarri.

## 5. Komunikazioa

Komunikazio-planak egin.

## 6. Generoa

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko planak diseinatu, kudeatu eta ebaluatu baita lana eta familia bateragarri egiteko planak ere.

Erakundeetan berdintasunaren aldeko prozesuak taxutu eta hobetu.

Proiektuak genero-ikuspegitik diseinatu eta kudeatu.

# INDARTU

antolaketa babestu eta sendotzeko programa  
programa de apoyo y fortalecimiento organizacional



edefundazioa

bbk gizarte ekintza  
aldea soziala